



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko azaroaren 21a

79 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileari buruzko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Erabakia, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua premiatzen duena Ziordiko Udalak eskatutako hainbat obra burutu ditzan Sakanako Autobian. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).

—Mozioa, Aljeriako herritarren hilketak gaitzesteko. Osoko Bilkurak baztertua (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Tutera-Madril autobidea eraikitzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren zenbait Foru Aginduri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Mendebaldeko Saharan erreferendum aske eta gardena egitearen aldeko erakunde-deklarazioa berrestea (14. or.).

H SAILA:

Bestelako Testu Arau Emaileak:

—304/1997 Foru Dekretua, urriaren 20koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak Berretsia (16. or.).

A SAILA:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko azaroaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Legea onetsi zuen, ondorengo testuarekin.

Biltzarreko Erregelamenduko 143 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 14a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Legea

ZIOEN ADIERAZPENA

Azken urteotan, Nafarroa nabarmen garatu da turismo toki gisa. Garapen hori sendotzeko, ezinbestekoa da kalitatezko turismo zerbitzu eta instalazioak eskaintzea. Horregatik, beharrezkoa da turismo instalazio eta zerbitzuen kalitate maila hobetzeko zenbait neurri hartzea, besteak beste Foru Komunitateko Administrazioari ikuskatzeko eta zehatzeko baliabide batzuk eskaintzea, turismo arloko arauak betetzen direla bermatzeko.

Konstituzioaren 25.1. artikulua, Konstituzio Auzitegiak horretaz egin duen interpretazioak eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak finkatu egin dituzte zehatzeko zuzenbide administratiboaren printzipioak.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.13 artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak turismoa sustatu eta antolatzeko eskumen osoa bereganatua du.

Honako Foru Lege hau legezkotasunaren printzipioa eta zehatzeko zuzenbidearen oinarrian egon behar duten gainerako printzipioak hertsiki

errespetatuz prestatu da, Nafarroak turismo arloan dituen eskumenen babesean.

Foru Legearen hasieran xedea eta aplikazio esparrua finkatu dira eta, ondoren, lehendabizi, turismo arloko ikuskapena arautzen da, eginkizun espezializatu gisa, eta eginkizun hori egoki betetzeko behar diren baliabide juridikoak eskaintzen dira. Bigarrenik, zehatu daitezkeen jokabideak zehaztu eta sailkatzen dira, dagozkien zehapenak finkatuz eta jarraitu beharreko zehapen prozedura arautuz.

I. KAPITULUA

Xedea eta aplikazio esparrua

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean turismo arloa ikuskatzeko jarduera arautzea, arau-haustek tipifikatzea, administrazio zehapenak finkatzea eta segitu beharreko zehapen prozedura zehaztea.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.

Foru Lege hau aplikatuko zaie Nafarroako Foru Komunitatean kokaturiko turismo enpresa edo establezimenduen titularrak diren pertsona fisiko eta juridikoei eta turismo arloko jardueretan gure lurraldean aritzen direnei.

3. artikulua. Erantzule diren subjektuak.

1. Turismo arloan egiten diren arau-hausteen erantzule izanen dira turismo enpresa, establezimendu edo jardueraren titularrak diren pertsona fisiko eta juridikoak. Besterik frogatu ezean, aginduzko lizentzia edo baimenean agertzen dena izanen da titularra. Lanbide edo jardueran aritzeko aginduzkoa den administrazio gaikuntzarik ez izateagatik arau-hausteen erantzulea jarduera horretan aritzen den pertsona fisiko edo juridikoa izanen da.

2. Turismo enpresa eta jardueren titularrak erantzule izanen dira enpresa edo jarduerari atxi-

kita dagoen edonork egiten dituen arau-hausteen-gatik, baina deusetan galarazi gabe, kaltearen ordainez, arau-haustea egiten duten pertsonen aurka zuzenbidearen arabera zilegi diren ekin-tzak.

II. KAPITULUA

Turismo arloko ikuskapena

4. artikulua. Turismo ikuskatzailtza.

1. Turismo ikuskatzailtza, turismo arloko eskumena duen organoaren menpean, honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Turismo arloan indarra duten xedapenak betetzen ote diren begiratzea eta egiaztatzea eta behar diren txostenak egitea.

b) Hala erabiltzaileen erreklamazio edo salaketa dagoenean, nola ustez arau-haustea edo irregulartasuna izan delako ohartarazpena dagoenean, egintza horiek egiaztatzea.

c) Azpiegitura eta enpresen funtzionamendurako behar diren baldintzei buruzko aholkularitza ematea eta txostenak egitea eta diruz laguntzen diren inbertsioen segimendua egitea.

2. Turismo ikuskatzailtzari atxikitako funtzionarioak, dagozkien eginkizunetan aritzen direnean, agintaritzaren agente gisa arituko dira eta indarra duen arategiak haiei eskaintzen dizkien babes eta ahalmenak izanen dituzte. Lana hobeki egiteko beharrezkoa dela irizten dutenean, beste administrazio edo erakunde publikoetako langile eta zerbitzuen laguntza eskatu ahalgo dute.

3. Ikuskatzaileek behar den kreditazioa izanen dute, lanean ari diren guztietan erakutsi beharko dutena.

4. Ikuskapen lana, beti ere, isilpekoa izanen da. Hortaz, ikuskatzaileak beharturik daude sekretu profesionala zorrozki betetzera.

5. artikulua. Laguntzeko betebeharra.

1. Turismo enpresa eta jardueren titularrak edo ikuskapena egiten den unean haien kargu dauden pertsonak beharturik daude lanean ari diren turismo ikuskatzailtzako langileei laguntzera, turismo jarduerari dagozkion eraikinak, instalazioak, agiriak, liburuak eta erregistroak ikusi eta azter ditzaten.

2. Ikuskatzaileak beharrezkotzat hartzen duenean, jarduketan barruan, ahalmena izanen du interesatuei eskatzeko, zergatia azalduz, Turismo Ikuskatzailtzaren bulegoetan ager daitezten, kasuan kasuko zitazioan adierazten denaren ondorioetarako.

3. Turismo jardueretan aritzen diren establezimendu guztietan bisita liburu bat izan beharko dute, behar bezala eginbidetua, turismo Ikuskatzailtzako funtzionarioen eskura, eta bertan agertuko dira egin diren ikuskapenak eta horien inguruabarrak.

4. Ikuskapen zerbitzuek eskatu ahalgo diete erakunde ofizial, lanbide erakunde eta kontsumitzaileen elkarteei beren lana egoki egiteko behar duten informazioa eskain diezaie.

6. artikulua. Ikuskapen aktak.

1. Ikuskapenean jasotakoa akta batean bilduko da, ikuskatzaileak berak eta ikuskapena egin den turismo enpresa edo establezimenduko titularrak edo horren ordezkari legalak, edo horiek ezean, une horretan enpresa edo jardueraren kargu dagoen pertsonak sinatu beharko dutena eta kopia bat hantxe geldituko da. Sinaduraren bidez aktaren eta bertan bildutakoaren berri badela egiaztatuko da baina ez du inolaz ere erakutsiko horrekiko adostasunik dagoenik. Aipatu pertsona horiek akta sinatzeari uko egiten badiote, ikuskatzaileak egoera hori aktan bildu beharko du, horretarako ematen duten arrazoiekin batera, behar den eginbidearen bitartez.

2. Turismo Ikuskatzailtzak bere eskumeneko jardueretan egiten dituen aktetan agertzen diren egintzak egiaztat hartuko dira, kontrakoa frogatu ezean.

III. KAPITULUA

Arau-haustek

7. artikulua. Arau-haustek.

1. Turismo arloko arau-hauste administratibotzat hartuko dira Foru Lege honetan tipifikatu eta zehaturik dauden egintza eta ez-egite guztiak.

2. Egiten diren arau-haustek erantzukizun administratiboa sortuko dute, zeina behar den espedientea izapidatu ondotik gauzatuko den.

3. Administrazioaren iritziz, arau-haustek hutsegite edo delitutzat har daitezkeenean, administrazio organoak Ministerio Fiskalari igorriko dio kasua eta zehapen prozedurarekin aurrera egiteari uko egingen dio, agintari judizialek ebatzia hartu arte. Zehapen penala izanez gero, administrazio zehapena jartzerik ez da izanen. Delitu edo hutsegiterik ez dagoela iritziz gero, Administrazioak hasierako zehapen espedienteari jarraipena eman diezaioke, eskumena duen jurisdikzioak frogatutzat jotzen dituen egintzetan oinarrituz.

8. artikulua. Arau-hauste motak.

Turismo arloko administrazio arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

9. artikulua. Arau-hauste arinak.

Honako hauek dira arau-hauste arinak:

1. Kontraturiko zerbitzuetan akatsak egitea, zerbitzuen izaera eta hitzarturiko baldintzen arabera.

2. Turismo establezimenduetako lokal, instalazio, altzari edo tresnen itxura eta funtzionamenduan akatsak izatea.

3. Erabiltzailearekiko tratua zuzena ez izatea.

4. Turismo arloan eskumena duen Administrazioari jakinarazitakoa edo iragarritako goi-muga baino gehiago kobratzea zerbitzuren batengatik, non ez den jakinarazi edo iragarritakoaren 100eko 30 baino gehiago, edo ez den betetzen prezioen gainean indarra duten xedapenetan adierazitakoa.

5. Kontsumitzaileari prezioaren zati bat ezkutatzea, eskatu ez den edo agerian ez dagoen prestazioaren baten bidez.

6. Eskatu ez diren zerbitzu edo ondasunak erabili edo kontsumitzera behartzea.

7. Establezimenduaren titularraren edo prezioen aldaketari buruz edo, turismo arloko arauen arabera, jakinarazi beharreko bestelako informazioei buruzko ohartarazpen edo jakinarazpenik ez igortzea Turismo arloan eskumena duen Administrazioari.

8. Erabiltzailearen babesa bermatzeko asmoz eta enpresa, instalazio edo zerbitzuaren araubide eta funtzionamendua egokiak izan daitezen, kontratazio, dokumentazio, fakturazio, informazio, liburu eta erregistroen gainean ezarrita dauden derrigorrezko arauak ez betetzea.

9. Egindako kontratua eteteko edo eman beharreko zerbitzua bertan behera uzteko arauak ez betetzea.

10. Erreklamazio-orririk ez izatea edo, eskatzen direnean, atera nahi ez izatea.

11. Bezeroak turismo enpresarekin duen harremana nolakoa den kreditatzeko agiriak eta legez emandako fakturak haren esku jarri nahi ez izatea.

12. Erregelamenduaren arabera establezimenduetan ageri beharreko adierazgarriak ez izatea edo eskatu bezala ez paratzea.

13. Produktu eta zerbitzuen eta horien prezioen publizitatea arautzen duten xedapenak ez betetzea.

14. Zerbitzuen prestazioaren inguruko ezaugarri partikularrei publizitaterik ez ematea.

15. Orohar, turismo arloko arauetan ezarritako baldintzak, beharkizunak eta debekuak ez betetzea, arau-hauste larri edo oso larritzat hartzerik ez dagoenean.

10. artikulua. Arau-hauste larriak.

Hauek dira arau-hauste larriak:

1. Turismo zerbitzu edo jardueraren bat ematea edo horretan aritzea, indarra duten arauen arabera horretarako behar den aginduzko baime-na edo titulazioa izan gabe.

2. Turismo jarduera batean aritzeko edo hura sailkatzeko behar den baimen, titulu, lizentzia, jakinarazpen edo gaikuntza luzatzeko eskatzen diren baldintza edo beharkizunak ez betetzea edo aldatzea.

3. Jardueraren sailkapenaren arabera dagozkion izen, errotulu edo adierazgarrien ordeztze, beste batzuk erabiltzea.

4. Establezimenduaren egitura, edukiera edo ezaugarriak Administrazioak aurretik baimenik eman gabe aldatzea, hori aginduzkoa den kasuetan.

5. Kontraturiko zerbitzuren bat ez ematea edo hitzartu ziren kalitate, kantitate edo izaeraren inguruko baldintzak ez betetzea.

6. Sarrera librea debekatzea edo bezeroren bat egozte, justifikaziorik gabe.

7. Turismo arloan eskumena duen Administrazioari jakinarazitakoa edo iragarritako goi-muga baino gehiago kobratzea zerbitzuren batengatik, jakinarazi edo iragarritakoaren 100eko 30 baino gehiago baldin bada.

8. Turismo ikuskatzailetzaren edo eskumena duten beste organo administratibo batzuen jarduna errazteari uko egitea edo trabak jartzea.

9. Turismo jardueretan ari direnek eskaintzen dituzten zerbitzu eta prestazioen oinarritzko elementuen inguruan, nahasmendua edo engainua sor dezakeen publizitatea agertzea.

10. Plazen erreserbari dagokionez, zerbitzua behar bezala ez ematea, dagozkion plazak baino gehiago kontratatu izateagatik.

11. Turismoko administrazioak azpiegituretan edo funtzionamenduan antzemandako akatsak zuzentzeko emandako epeak ez betetzea.

12. Turismo arloko arauak eskatzen duten kapital sozialaren zenbatekoa, aseguruak bermeak edo fidantzak ez mantentzea.

13. Turismo kanpalekuetan kanpinzale egonkor edo bertan bizi direnak onartzea eta debekatutik dauden kanpaketa unitateak ezartzen uztea.

14. Turismo establezimenduetan suteei aurrea hartzeari eta bertako segurtasunari buruzko arautegia haustea alderdi ez-funtsezkoaren batean.

15. Turismo zerbitzuak emateko, legez gaiturik ez dauden toki, lokal, ibilgailu edo pertsonak erabiltzea edo, horretarako gaiturik egonda ere, erabiltzetik utziak egotea.

16. Informazio ez-zehatza jakinaraztea edo dokumentazio faltsua aurkeztea.

11. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

1. Turismo jardueraren batean ezkutuan edo arautegia larriki hautsiz aritzea.

2. Turismo establezimenduetan suteei aurrea hartzeari eta bertako segurtasunari buruzko arautegia funtsezko alderdiren batean haustea.

3. Turismo jardueraren bat eraiki, ireki edo bertan aritzeko derrigorrezko baimen, titulu, lizentzia edo gaikuntzak emateko funtsezko baldintzak iruzur egin asmoz aldatzea.

4. Arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea.

5. Horiez gain, arau-hauste oso larritzat hartuko dira arau-hauste larri gisa tipifikatuak, honako inguruabarren bat gertatzen denean:

a) Egindakoaren edo ez-egiteko jokabidearen ondorioz, kalte handia eragitea Nafarroako interes turistikoari, kasuan kasuko turismo lanbide edo jardueraren izen onari edo, orohar, bezeroei.

b) Arau-haustearen egintzan edo ez-egiteko jokabide horretan asmo txar, makurkeria edo utzi-keria nabarmena antzematea.

12. artikulua. Adiskidetzeak eta konponketak.

Zehapen espedienteak izapidatu aurretik edo izapidatu bitartean, aukera emanen zaio ustezko arau-hausteari eragindako kalteak konpondu edo administrazio irregulartasunak zuzentzeko.

Turismo zerbitzua eskaintzen duten enpresek kontsumitzaile eta erabiltzaileei eragindako kalte-

ak konpontzeko borondatezko adiskidetze-egintza egin ahalko da, bakar-bakarrik, interes partikularra nagusi den erreklamazioetan eta interes hori kuantifikagarria baldin bada.

Borondatezko adiskidetzearen ondorio berberak izanen ditu alderdiak Kontsumoko Arbitraje Sistemaren menpean jartzeak.

Administrazio irregulartasunak konpontzea onartuko da bakarrik, arau-haustearen garrantzia eta eragindako kaltea ikusita, bidezkoa denean.

Adiskidetzea eta konponketa izanez gero, jarduketak artxibatu edo arau-haustearen kalifikazioa jaitsiko dira.

IV. KAPITULUA

Zehapenak

13. artikulua. Zehapenak.

Lege honek eta turismo arloko gainerako arauak xedatuaren aurkako arau-hausteen ondorioz, honako zehapen hauek jarriko dira:

a) Ohartarazpena.

b) Isuna.

c) Turismo jardueretan aritzea galaraztea edo establezimendua ixtea urte batez, gehienez.

d) Titulua edo baimena kentzea edo establezimendua ixtea.

14. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.

1. Arau-hausteei honako zehapenak dagozkie:

a) Arau-hauste arinengatik, ohartarazpena edo 100.000 pezeta bitarteko isuna jarriko da.

b) Arau-hauste larriengatik, 500.000 pezeta bitarteko isuna jarriko da.

c) Arau-hauste oso larriengatik, 5.000.000 pezeta bitarteko isuna jarriko da.

2. Zehapen nagusi gisa edo osagarri gisa instalazioa edo establezimendua ixtea edo jarduera galaraztea ere erabaki daitezke, sei hilabeterako, gehienez ere, arau-hauste larriak direnean, eta sei hilabetetik urte batera arte, arau-hauste oso larriak direnean.

3. Titulua edo baimena kentzea eta establezimendua behin betikoz ixtea ere erabaki daitezke, arau-hauste oso larriak behin baino gehiagotan egiten direnean.

Jarduera galarazteko edo establezimendua ixteko erabakiaren berri bertako Udalari emanen zaio eta hango agintaritzako delegatuen laguntza ere eska daiteke, erabakia betearazteko.

4. Arau-hauste larri edo oso larriak egiten direnean, zehapen osagarri gisa, erabaki ahalko da arau-haustea egin duen pertsonari, zehapenaren xede den jardueran aritzeko, Nafarroako Foru Komunitateari eskatu eta handik jaso dituen diru-laguntza edo laguntza finantzario guztiak kentzea edo etetea.

5. Jardueran aritzeko eskaera izapidatze-aldian baldin badago, ez da zehapentzat hartuko aginduzko baimena ez izateagatik erabaki litekeen establezimenduaren edo instalazioen itxiera, indarra duten arauekin bat, ez eta baimena lortu artean erabaki litekeen jardueraren funtzionamendua galaraztea ere. Establezimenduaren itxiera edo funtzionamendua galaraztea turismo arloan eskumena duen zuzendari nagusiak erabakiko du, interesatuari entzutea eman ondoren. Erabaki hori har daiteke deusetan galarazi gabe dagokion zehapen espedientearekin irekitzea.

15. artikulua. Zehapenen graduazioa.

Zehapenak jarriko dira kontuan harturik administrazio arau-haustea egin zenean gertatu ziren inguruabarrak eta, batez ere, honako hauek:

- a) Ukitutakoei eragindako kalteak.
- b) Ukituriko pertsona kopurua.
- c) Legez kontra lorturiko onuraren zenbatekoa.
- d) Enpresaren ahalmen ekonomikoa.
- e) Turismo sektoreari eta Nafarroako irudi turistikoari eragindako ondorio negatiboak.
- f) Berrerortzea.
- g) Prozedura hastea ekarri zuten irregulartasunak espedientearen izapidatze-aldian konpontzen ote diren.

16. artikulua. Berrerortzea.

Foru Lege honen ondorioetarako, berregitea izanen da arau-haustearen erantzulea, administrazio bidetik ebazpen irmoaren bidez, hutsegite berbera dela kausa, urte bateko epean bi aldiz zehatu denean, lehenbiziko hutsegitea egin zenean kontaktatzen hasita, edo hutsegite ezberdinak direnean, hiru aldiz urte bateko epean.

17. artikulua. Behartzeko isunak.

Aurreko artikuluetan zehaztu isunak gorabehera, jarduera edo establezimendua arauetan ezarritakoari egokitzeko errekerimenduan adierazi epeak amaiturik, zehapena eman duten organoek behartzeko isunak ezar ditzakete, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 99. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Isun horietako bakoitzaren zenbate-

koa ez da izanen egindako arau-haustearengatik jarritako isunaren ehuneko 20 baino handiagoa.

18. artikulua. Eskumena.

Foru Lege honetan finkaturiko zehapenak ezartzeko eskumena honako hauek dute:

1. Turismo arloan eskumena duen zuzendari nagusia, arau-hauste arin edo larriak direnean.
2. Arlo horretan eskumena duen kontseilaria, arau-haustea oso larriak direnean.
3. Nafarroako Gobernua, establezimendua ixtea ekartzen duten arau-hauste oso larriak direnean.

V. KAPITULUA
Preskripzioa eta iraungipena.

19. artikulua. Preskripzioa.

1. Foru Lege honetan aurreikusitako arau-hauste oso larriak bi urteren buruan preskribituko dira, urte baten buruan larriak eta sei hilabetera arinak.

Arau-hausteak preskribitzeko epea hutsegitea egin zen egunetik aurrera kontaktatzen hasiko da.

Jarduera jarrai baten ondoriozko arau-haustetan, preskripzioa zenbartzeko lehen eguna haxe izango da: jarduera bukatu denekoa edo arau-hausteari buru ematen dion azken egintzarena.

Preskripzioa eten eginen da dagokion zehapen espedientearekin irekitzen denean, interesatuak horren berri izanik.

2. Hutsegite oso larriengatik jarritako zehapenak hiru urteren buruan preskribituko dira, hutsegite larriengatik jarritakoak bi urteren buruan eta hutsegite arinengatik urte batera.

Zehapenak preskribitzeko epea zehapena jarritako ebazpena irmo bilakatu eta bihamunetik aurrera kontaktatzen hasiko da.

Preskripzioa eten eginen da exekuzio prozedurari hasiera ematen zaion momentuan, interesatua jakinaren gainean egonda.

20. artikulua. Iraungipena.

Zehapen prozedura hasi eta hiru hilabeteko epearen barruan salatutakoari horren jakinarazpena egiten ez bazaio, jarduketak artxibatuko dira. Era berean, izapidatze-aldi bakoitzaren jakinarazpena interesatuari egin eta hiru hilabeteko epearen barruan, Administrazioari egotzi beharreko arazoengatik, hurrengo aldiari ekiten ez bazaio, jarduketak artxibatuko dira.

Halaber, jarduketak artxibatuko dira, interesa-tuak eskatuta edo ebazpena emateko eskumena duen organoak ofizios erabakita, ebazpena emateko epea amaitu eta hogeita hamar egun igarota.

Jarduketak artxibatzen badira, salatutakoari jakinarazi beharko zaio.

VII. KAPITULUA Zehapen prozedura

21. artikulua. Hasiera.

1. Turismo arloko zehapen-espeditentea, eskumena duen organoak harturiko erabakiaren bidez, ofizios hasiko da jarduketa hauetariko edozeinen ondorioz:

a) Turismo ikuskatzailtzak egindako akten ondorioz.

b) Agintaritzak edo administrazio organo batek, ustezko arau-hauste baten berri izanik, egindako jakinarazpenaren ondorioz.

c) Turismo establezimenduetako erreklamazio orrietan jasotako kexa edo salaketaren ondorioz.

d) Indarra duten prozedurari buruzko arauak ezartzen dutenari jarraikiz, egindako erreklamazio baten ondorioz.

e) Legez eraturiko elkarteren batek sarturiko salaketaren ondorioz.

f) Turismo arloan eskumena duen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio organo eskudunaren beraren ekinbidez, ustezko arau-hauste baten berri duenean, zernahiren bitartez.

2. Espeditentea hasi aurretik gertatutakoa argitzeko informazioa biltzea agindu daiteke. Egindako jarduketak ikusirik eta gertatutakoa azterturik, arau-haustearen zantzuak ote direnentz erabakiko da eta, bidezko denean, zehapen-espeditentea irekiko. Espeditentea izapidatzeko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen IX. tituluaren II. kapituluaren bildutako printzipioei jarraikiko zaie.

22. artikulua. Aurreneurriak.

1. Salbuespen gisa, segurtasun arrazoiengatik beharrezkoa denean, turismo zerbitzuaren erabiltzailearen interes ekonomikoentzako arrisku larria dagoenean edo Nafarroako irudi turistikoarendako kalte larria eta benetakoa etor daitekeenean, esta-

blezimendua berehala ixtea edo instalazioak pre-zintatzea erabaki ahalko da, aurreneurri gisa, akatsak zuzentzeko behar den denborarako eta, gehienez ere, espeditentea ebatzi arte.

2. Espeditentea irekitzeko eskumena duen agintaritzak aurreneurri horiek hartzeko esku ere izanen du, ebazpen arrazoituaren bidez, interesatuari entzutea eman ondoren.

23. artikulua. Zehapenak betetzea.

Foru Lege honetan xedatutakoaren babesean ezartzen diren zehapenak administrazio bideari amaiera ematen diotenean berehala betearazi beharko dira, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen xedatutakoari jarraikiz.

Zehapen prozeduraren ebazpenen aurka Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen VII. Tituluaren II. kapituluaren xedatutakoari jarraikiz bidezko diren helegiteak jarri ahalko dira.

24. artikulua. Zehapenen erregistroa.

Turismo arloan eskumena duen Departamentuan zehapenen erregistro bat irekiko da, Foru Lege hau hausteagatik ezartzen diren zehapen irmoen idazpenak hartuko dituen. Idazpen horiek deuseztatu egingo dira erregistratu eta urte batera.

Xedapen iragankorra

Lege honek indarra hartzen duen egunean irekita dauden espeditentek izapidatu eta ebatziko dira hasiera eman zitzaienean indarra zuten xedapenen arabera.

Azken Xedapenak

Lehena. Foru Lege honetan aurreikusten diren zehapenen zenbatekoak berrikusi eta eguneratu ahalko dira Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontuen Legeetan.

Bigarrena. Ahalmena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta Turismo arloan eskumena duen kontseilariari Foru Lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta egun berean hartuko du indarra.

B Sails:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileari buruzko Foru Lege proposamena

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 1997ko azaroaren 13an egindako Osoko Bilkuran, «Nafarroako Demokraten Elkar-gunea» Parlamentari Taldeak aurkeztutako Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileari buruzko Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki zuen.

Proposamen hori 1997ko urriaren 13ko 66 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 14an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

E Saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Erabakia, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua premiatzen duena Ziordiko Udalak eskatutako hainbat obra burutu ditzan Sakanako Autobian

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko azaroaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen "Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua Ziordiko Udalak eskatutako hainbat obra Sakanako Autobian burutu ditzan premiatzen duen Erabakia" onestea. Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da

Iruñean, 1997ko azaroaren 14a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Erabakia, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua premiatzen duena Ziordiko Udalak eskatutako hainbat obra burutu ditzan Sakanako Autobian

Nafarroako Parlamentuak:

Nafarroako Gobernua premiatzen du, ahalik eta epe laburrenean, objektiboki kontrastaturiko txosten tekniko eta juridikoetan oinarrituta eta dagokion Foru Aginduan erabaki dezan soluziorik bideragarriena eta teknikoki onargarrien eta objektiboena, Ziordiko lurrazpiko pasabidearen eta Ziordia eta Olaztiren arteko loturaren arazoari irtenbidea emateko.

Mozioa, Aljeriako herritarren hilketak gaitzesteko

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

Biltzarrak, 1997ko azaroaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Begoña Errazti Esnal Parlamentari andreak Aljeriako herritarren hilketak gaitzesteari buruz aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1997ko azaroaren 10eko 73. zk.ko

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 14a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F Sails:
GALDERAK

Tutera-Madril autobidea eraikitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Tutera-Madril autobidea eraikitzeari buruzko galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Tutera-Madril autobidea eraikitzeari buruz eta, zehazki, Medinaceli-Tutera zatiari buruz Miguel Ángel Larráyoz Lezáun, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak:

1.- Gobernuak interes handikotzat edo interesekotzat jotzen al du Tutera-Madril autobidea izatea?

Nafarroako Gobernuak interesik handienekoa jotzen du Madril-Tutera autobidea, dela Nafarroarentzat dela penintsularen Erdialdea/Mendebaldeak Iruñea eta Frantziarekin dituen komunikazioentzat.

2.- Ez al du uste Nafarroako Gobernuak 13-15 urteko epea erabakiorra izango dela Nafarroako Ebroko erribera behin betiko atzeratua geratzeko, beste erkidego batzuekin alderatuz gero, Madrilekiko komunikabideei bagaogozkie?

Galderan aipatzen den 13tik 15 urtera bitarteko epea testuingurutik ateratako informazio batean oinarritua dago. Sustapen Ministerioaren bidez

Nafarroako Gobernuak dituen datuek adierazten dutenez, neurririk haundienean arinduko dira Madril-Tutera autobidearen hirugarren zatiaren (hau da, Medinaceli-Tutera zatiaren) kontzesiorako izapideak.

3.- Nafarroako Gobernuak ez al dio Estatuko Gobernuari bestelako komunikabide azkarrik planteatu behar Nafarroako erribera eta Madril lotzeko, Zaragoza-Madril autobidearekiko lotura, esate baterako?

Galderan adierazitako proposamena hasiera-hasieratik Nafarroako Gobernu honek defendatu duen tesia da. Tesi eta lanerako plan hori honetan oinarritzen da:

- Madril-Tutera Autobidearen lehenengo zatia, Madril-Guadalajara tarteari dagokiona, kontzesio bidez eraikitzea. Zati hori lehiaketara aterako da datozen hilabeteetan.

- Madril-Tutera autobideko hirugarren zatia, Medinaceli-Tutera tarteari dagokiona, kontzesio bidez eraikitzea. Ondoren aterako da lehiaketara.

- Dagoeneko existitzen den N-II Autobiak Guadalajaratik Medinacelira duen zatia denbora-epe luze batez erabiltzea.

Nafarroako Gobernuak egindako proposamen hau da Sustapen Ministerioak burutzeko asmoa duena, korridore honi buruz dituen aurreikuspenetan.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñean, 1997ko urriaren 13an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren zenbait Foru Aginduri buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren zenbait Foru Aginduri buruzko galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Obra-kontratuak esleitzeko irizpideei buruz Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak emandako 3591/96, 1078/97 eta 3016/97 Foru Aginduei buruz Miguel Ángel Larráyoz Lezáun, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak eginitako galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak:

1.- Zer arrazoi zehatz direla-eta onetsi zituen Gobernuak?

2.- Zer irizpide erabili ziren horiek egiteko?

3.- Zeintzuk dira bakoitzaren onespeneren alde egon ziren txosten, aholku eta aurretiazko beste erreferentziak?

Elkarrekin lotura duten galderak direnez gero, hirurei erantzun bateratua emango zaie.

Departamentu honetan egiten diren obra-kontratuetan erabili beharreko prozedurei eta esleipen-moduei buruzko jarraibideak ematen dituen azaroaren 28ko 3591/1996 Foru Agindua onestera bultzatu zuten arrazoiak Nafarroako Parlamentuko Herrilan eta Azpiegitura Batzordearen 1996ko azaroaren 26ko bilkuran azaldu ziren, eta aipatu Foru Aginduko Zioen Adierazpenean zehazten dira: Foru Agindu hori ematearen xedea Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan obra-esleipenatarako sistema garden eta objektibo bat ezartzea zen, esleipen-prozesuetan diskrezionalitatea ahalik eta neurririk handienez murriztuz.

4.- Zer iritzi du Kontseilari jaunak lehen bi aginduen edukien aplikazioaz eta hirugarren batek horiek indargabetzea eragin duen esperientziak?

7.- Zein arrazoi zehatzek eragin dute 3591 eta 1078 zenbakiak dituzten aginduak indargabetzea eta zergatik nahiago du bere agintaldian proposaturikoaren aurreko sistema?

Galdera hauei erantzun bateratua ematen zaie, elkarrekin zerikusia daukatelako.

1997ko otsailaren 7an, SEOPANek (Nazio Mailako Eraikuntza Enpresen Elkarte) errekurtsio arrunta jarri zuen 3591/96 Foru Aginduaren kontra, indarreko legedia urratzen zuela uste izateagatik.

Zerbitzu juridikoek errekurtsio horren edukia aztertu ondoren, aurrera ateratzen baldin bazen Administrazioaren jardura kontratu-egilea gera zezakeela kontuan eduki zen. Segurtasun juridiko handiagoa lortzeko asmoz, 1078/97 Foru Aginduak aurreko Foru Aginduaren aldaketa eta indargabetze partziala ezarri zituen.

1078/1997 Foru Agindua ere errekurritua izan zen, 1997ko apirilaren 2an. ANECOPEk (Obra Publikoen Enpresa Kontratisten Nafarroako Elkarte) errekurritu zuen, Zuzenbideari egokitua ez zegoela uste izateagatik. Errekurtsio hori Nafarroako Gobernuaren 1997ko ekainaren 23ko Erabakiaren bidez ezetsia izan zen, Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Aholkularitza Juridikoak 1997ko maiatzaren 26an horri buruz eman zuten txostenaren ildotik.

1997ko apirilaren 28an, ANECOPEk errekurtsio arrunta jarri zuen hainbat Foru Agindu eta Ebazpenen kontra (honekin batera doan zerrendan aipatzen dira horiek), ordurako errekurritua zegoen 1078/1997 Foru Aginduaren aplikazio bat zirela uste izateagatik eta aurreko errekurtsioan adierazitako arrazoiengatik.

Hori horrela, komenigarri jo zen 3591/97 eta 1078/97 Foru Aginduak indargabetzea, pentsatzen zelako horietako lehenengoaren indargabetzearen eta aldaketa partzialaren ondoren indarrean geratzen ziren arauak hasiera batean finkaturiko helburuak lortzea ez zutela uzten, zeren eta, indarrean zeuden esleipen-irizpideekin, esleipenak, ia erabat, eskaintzen alderdi ekonomikoan soilik oinarritzen baitziren. Hori dela-eta argi-

taratu zen uztailaren 4ko 3016/1997 Foru Agindua, 3591/1996 zenbakia zuen azaroaren 28koa eta 1078/1997 zenbakia zuen otsailaren 25ekoa indargabetzen zituena, gaia behar bezala arautua utziz.

5.- Lehen kasuan Batzordeari berri eman zitzaion, baina ez, ordea, ondorengoetan: zergatik gertatu da irizpide-aldaketa hau?

6.- Aurrerantzean Batzordeari eta komunikabideei indargabetzeen berri emateko asmorik ba al du?

Burututako jarduerak ez dute irizpide-aldaketa bat adierazten, erabat kontrakoa baizik. Berretsi egin da Gobernu honek eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak -Nafarroako Parlamentuko Herrilan Batzordearen laguntasunarekin-gardentasuna eta objektibotasuna nagusi izango diren esleipen-sistema bat sortarazteko duten borondatea.

Esan bezala, irizpide-aldaketarik gertatu ez denez, Batzordeari eta komunikabideei berri ematea ez da aurreikusia.

8.- Zeintzuk diren 3016/97 Foru Aginduan iragarritako esleipen-irizpide berriak, eta horiek Batzordeari agertzeko asmorik ba al duen.

Indarreko esleipen-irizpideek ohiko lehiaketa-prozedura mantentzen dute, alderdi teknikoari 100 puntutik 15eko balorazioa eta alderdi ekonomikoari 100 puntutik 85ekoa emanez, 1996ko azaroan aurreikusia bezala.

9.- Onetsiak izan aurretik ezagutu al ditu Gobernuko Lehendakariak ondoren eman diren Foru Aginduak? Horiei buruzko iruzkinik egin al da Gobernuaren bilkuraren batean? Bata bestearen ondoren ezarri diren irizpideen balioespenik izan al da?

Bai Lehendakaria bai Gobernuko gainontzeko kideak hasieratik egon dira Departamentuaren jarduketara eta helburu guztien jakinaren gainean, hala obra-kontratuen esleipen-irizpideei dagokienean nola SEOPANek errekurtsioa jarri ondoren sortu zen eta 3591/1996 Foru Aginduaren aldaketa eragin zuen egoerari dagokionean, pertsonalki eman baitzaie horren berri Gobernuaren bilkuretan.

Zehazki, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan gaur egun erabiltzen diren irizpideen berri 1997ko uztailaren 4ko bilkuran izan zuen Nafarroako Gobernuak.

10.- Aginduen azalpenean errekurtsioei buruz egiten den aipamena kontuan edukiz, orain indar-

gabetu diren bata bestearen ondorengo araudiak indarrean zeuden bitartean, aurkeztu al da kontratazio-prozeduretako izapide edo ebazpenen aurkako erreklamazio edo errekurtsorik, bide administratibo zein kontentziosotik? Baiezkoan, zenbat? Proiektuaren hasiera edo garapenari atzerapenik ekarri al diote? Edo, bestela, kalte-ordainketarik egin al da? Osoki edo partzialki errekurtsorik onartu al da?

Lehenagoko hainbat erantzunetan aipatu dira jadanik esleipen-irizpideak arautzen zituzten aginduen kontra eta horiek aplikatzen zituzten ebazpenen kontra izandako errekurtsioak.

Errekurtsio hauek ez dute atzerapenik eragin obra-proiektuen hasieran edo garapenean, eta kalte-ordainketarik ere ez da izan.

Errekurtsio guztiak ezetsi egin ziren; dena den, SEOPANenari dagokionez, 3591/1996 Foru Agindua aldatua izan ondoren ebatzi zenez (aldaketa horrek inplizituki errekurtsioa onetsi egiten zuen), errekurtsioa zentzurik gabe geratu zen.

11.- Indargabeturiko aginduek ezarritako irizpideekin nahi diren objektibotasun eta gardentasuna erdietsi direla eta herrilaren kontratazio zurgabetasun sozial eta politikoko giroa hobetu dela uste al du?

Aurreko Aginduek jasotzen zituzten irizpideek eta gaur egun erabiltzeko inolako bertuterik baldin bazuten eta baldin badute, objektibitate eta gardentasunari dagozkien baldintzak betetzean datza, aurretiaz ezagutu eta aztertutako irizpideak baitira, eta Administrazioari ezein enpresaren mesedetan jardutea eragozten dion prozedura bat erabiltzen delako.

Jarduketa horren lehentasunezko xedea zera izan da eta da: arauz kanpoko jokabideen arrastorik gabe garrantzi handiko inbertsio publikoak sustatzea posible dela gizarteari jakinaraztea. Begibistakoa da konbentzimendu hori ez dela hilabete gutxi batzuetan lortzen, denboran zeharreko jokabide egoki baten bidez baizik. Gai horien inguruan iritzi publikoak bere zalantzak uxatu dituela suposatze goizegi bada ere, argi dago hilabeteotan buruturiko prozedurei buruzko iritziak, horien gardentasun eta objektibotasunarengatik, positiboa izan behar duela frogatu daitekeela.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñean, 1997ko urriaren 10ean.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti.

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Mendebaldeko Saharan erreferendum aske eta gardena egitearen aldeko erakunde-deklarazioa berrestea

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko azaroaren 13an egindako Osoko Bilkuran, "Mendebaldeko Saharan erreferendum aske eta gardena egitearen aldeko erakunde-deklarazioa" berretsi zuen. Ondoren paratu da haren testua:

Iruñean, 1997ko azaroaren 14a

Mendebaldeko Saharan erreferendum aske eta gardena egitearen aldeko erakunde-deklarazioa

1.- Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du bere jarrera, Mendebaldeko Sahararako Nazio Batuen Bake Planaren guztiz aldekoa, hala nola Nazio Batuen ekimenez eta kontrolpean Saharako herriaren autodeterminazioari buruzko erreferendum bat egitearen aldekoa eta bai Nazio Batuen Idazkari Orokorrek bai bere ordezkari eta mandatariek azken aldi honetan egin dituzten ahaleginen aldekoa ere. Esfortzu horiek iraun dezatela eta eraginkorrak izan daitezela nahi genuke.

2.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du egoera desblokeatzeak eta Houston-en 1997ko irailaren 14tik 16ra bitartean buruturiko bileretan iritsitako akordio-hastapenak poztasuna eragiten diotela. Maroko eta Fronte Polisarioko ordezkarien artean zuzeneko elkarrizketetan lau txanda eman ondoren, NBEko Idazkari Orokorraren ordezkaria den eta bi jarrerak hurbiltzea lortu duen James Baker jaunaren ezin eskertuzko laguntzaren bidez, alegia, Nazio Batuei autodeterminazio-erreferendumaren aplikazio-faseak abiaraztea ahalbidetu dienaren bidez, lortu ahal izan da akordio-hastapen hori.

3.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du gatazkan dauden bi aldeek aplikazio-fasean lankidetzaz-izpiritu berberari eutsiko diotela sinesten duela. Halaber, hainbat gairi buruz (iragan-epa, botu-emaileen identifikazioa, indar armatuen kantonamendua, preso eta atxilotuak, errefuxiatuen aberriaraztea, erreferendumaren zeharreko jokabi-

de-kodea eta hauteskunde-kanpainaren burutzea) Nazio Batuek emandako Ebazpenak eta bestelako akordioak hertsiki errespetatuko dituztela espero du.

4.- Nafarroako Parlamentuak, bake-prozesuaren bermatzaile eta iragan-epan lurralde horretan agintari bakarra diren Nazio Batuei, honakoa eskatzen die: bertan Administrazio boteretsu bat, beharrezko diren eskubideekin, eraiki dezatela, eta haien egitekoa eraginkortasun, sinesgarritasun eta indar moralez bete ahal izateko egoki diren giza- eta gauza-baliabideez horni dezatela.

5.- Orobat, Nafarroako Parlamentuak honako hau eskatzen die Nazio Batuei: lurraldean iragan-epan zehar eta hauteskunde-kanpaina eta erreferenduma burutzen diren bitartean inoren menpekoak ez diren nazioarteko behatzaileak eta nazioarteko prentsaren ordezkariak egotea erraztu dezatela, erreferendumaren garbitasun- eta gardentasun-bermeak zaintzeko.

6.- Nafarroako Parlamentuak Europako Bata-suneko gobernuei eskatzen die aipatu Bake Planaren arrakasta eta erreferenduma modu garbian burutzen dela bermatzeko ekintza eraginkorrak egin ditzatela, horiek honela gauzatuz: Saharako ur eta aberastasunen gaineko akordioak sinatzeari eta armak saldu edo lagatzeari dagokionean Nazio Batuen irizpenei jarraitzen zaizkien kanpo politikako harremanak edukiz Marokoko Erresumarekin; erreferendum-prozesuko fase guztietan behatzaileen bitartez parte hartuz, eta saharatarrei elkartasun-laguntza berezia bidaliz, erreferendumaren kanpainan modu duin batean parte hartzen ahalbidetuko diena.

7.- Nafarroako Parlamentuak honako hau eskatzen dio espainiar estatuko Gobernuari: saharatarrekin daukagun konpromiso historikoa- ren eta herri horrek Espainiarekin dituen kultura- loturen ondorioz, Saharako Herriaren alde tinko- ago ekin dezala eta Bake Planaren aplikazioari eta erreferenduma burutzeari laguntzarik haundiena

eman ahal izateko beharrezkoak diren neurri eta ekimenak har ditzala, presentzia politiko eta ekonomiko aktiboaren bidez eta prozesu honetako urrats guztietan partehartze zuzena izanez.

8.- Nafarroako Parlamentuak ezinbesteko jotzen du Nafarroako Gobernuak saharatar errefuxiatuen zelaietara bideratzen duen elkartasun-laguntza mantentzea eta gehitzea, hala nola bitartekoen gabezia gainditzera eta erreferendumean parte hartzeko saharatarren ahalmena sendotzera bideraturiko laguntza bereziak ziurtatuko dituen berariazko kontusail bat sortzea 1998rako Aurrekontu Orokorretan.

9.- Nafarroako Parlamentuak bake prozesuaren eta erreferendumaren garbitasunaren jarraipen-kanpaina burutu dadin laguntzeko prest dagoela adierazten du; baita, egoki den unean, Parlamentuaren Ordezkaritza Ofizial bat izendatzeko ere, Nazio Batuen orientabideei jarraituz eta Kanpo Arazoetarako Ministerioa jakinaren gainean egonik, inorekiko menpekotasunik gabeko nazioarteko behatzaile gisa parte har dezan, erreferendum-prozesu guztiak beharrezko duen garbitasuna bermatzeko.

10.- Nafarroako Parlamentuak gure Komunitateko udal eta kontzeju guztiei dei egiten die Mendebaldeko Sahararentzako Bake Prozesuaren aldeko Erakunde Deklarazioak onets ditzaten; Errepublikari Arabiar Sahariar Demokratikoko (EASD) administrazio-unitatea osatzen duten WILAYA (probintzia) ezberdinetako DAIRA (udalerri) direlakoekin senidetze-akordioak egin ditzaten; Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara elkartasun-laguntza bidaltzen lagun dezaten; herriko familiek udan Saharako neska-mutilak hartzea susta dezaten, eta, Sahararen Nafarroako Ordezkaritzarekin batera lan eginez, herritarrak Bake Prozesuaren garapenean interesatuta mantentzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak egin ditzaten.

11.- Nafarroako Parlamentuak kanpaina berezi bat eskatzen die Nafarroako GKEei 1998rako, garraio, komunikazio, informatika-bitarteko, arropa eta elikagaien arloan Saharako herriari laguntzeko, Nazio Batuek onetsiriko Mendebaldeko Sahararako Bake Planean aurreikusten den erreferenduma egiteko kanpainen modu duin batean parte hartu ahal izan dezan.

12.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako gizarteari eta Foru Komunitateko komunikabideei dei egiten die Saharako herriarenganako interes eta laguntzari eutsi diezaieten, eta Sahararako Nazio Batuek bultzaturiko erreferendum libre eta gardenaren aldeko kanpainen alde jardun dezaten.

13.- Azkenik, Nafarroako Parlamentuak Erakunde Deklarazio hau honako hauei bidaltzea erabaki du:

NBEko Idazkari Nagusiari.

ABEko (Afrikar Batasunerako Erakundea) Idazkari Nagusiari.

Europako Batasuneko Lehendakariari.

Espainiar Estatuko Buruari.

Espainiar Estatuko Gobernuako Lehendakariari.

Kongresu eta Senatuko Lehendakariei.

Espainiar Estatuko Kanpo Arazoetarako Ministroari.

EASDk Espainiar Estatuan duen ordezkaritza ofizialari.

Autonomi Erkidegoetako Lehendakariei.

Autonomi Erkidegoetako Parlamentuetako Lehendakariei.

Nafarroako Udalerri eta Kontzejuetako Alkate-Udalburuei.

H Saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

304/1997 Foru Dekretua, urriaren 20koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko azaroaren 13an egindako Osoko Bilkuran, 304/1997 Foru Dekretua, urriaren 20koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, berrestea erabaki zuen. Dekretu hori 1997ko azaroaren 7ko 134 zk.ko Nafarroako

Aldizkari Ofizialean eta 1997ko azaroaren 17ko 76 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 14a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

<p style="text-align: center;">HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.800 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .</p>	<p style="text-align: center;">IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p style="text-align: center;">NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p style="text-align: center;">«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p style="text-align: center;">Arrieta, 12, 3</p> <p style="text-align: center;">31002 IRUÑEA</p>
--	---